

# 2021eko albisteen kronika

Atal honetan Euskaltzaindiak sortu dituen edo erakundea ardatz izan duten berri garrantzitsuenak bildu ditugu. Aurtengoa ere urtea oparoa izan da ekimenetan, eta aukeraketa egin behar izan dugu. Hautatzea ez da erraza, eta beti dakar zerbait alboan uztea. Hargatik, guri esanguratsuak iruditu zaizkigunak hona ekartzean, irizpide nagusia izan da agerkari honetako atalen batean jada argitaratu ez izana -Arauk, Adierazpenak, Hilberri-txostenak eta abar- edo argitalpenen batean jaso ez izana -Jardunaldiak, batez ere-.

## URTARRILA

### Euskarazko Tesien VIII. Koldo Mitxelena sariak

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz, euskarazko tesien zazpigarren Koldo Mitxelena sariak antolatatu dituzte. Sari-emate ekitaldia UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaria zentroan izan da, Nekane Balluerka UPV/EHUko errektorea eta Andres Urrutia euskaltzainburua han izan direla.

Mitxelena sariak duela hamalau urte hasi zuten bidea, euskarazko doktorego tesiak sustatzeko helburuz. Sariak, euskarazko zientzia bultzatzeaz gain, ikertzaile gazteen lana aitortzen dute eta euskara prestigiatzen, maila goreneko aitortza eginez.

UPV/EHUUn euskaraz eginiko doktorego-tesien kopurua gaur egun zinez esanguratsua da: 2019-2020 ikasturtean, 62 izan dira euskaraz eginiko doktorego-tesiak, duela bost ikasturte baino 25 gehiago. Aurreko ideiarri jarraiki, zientzian, beste hainbat jakintza-arlotan bezala, kopurua bezain garrantzitsua da kalitatea. Kalitate horren adierazgarri dira nazioarteko kalifikazioa lortzen duten tesiak. 2019-2020 ikasturtean, euskaraz egin diren tesien erdia baino gehiago nazioartekoak izan dira (% 52), duela bost ikasturte baino % 9 gehiago.

Mitxelena sarien VII. edizioan, UPV/EHU 2018ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra arteko aldiaren euskaraz idatzi eta defendaturiko doktorego-tesiak aurkeztu ahal izan dira. Guztira, 74 tesi-egile aurkeztu dira sari hauetara, inoizko kopururik handiena; honela banatu dira, arloka, aurkezturikoak:

Zientzien arloan: 12 tesi.

Ingeniaritza eta Arkitekturaren arloan: 13 tesi.

Osasun Zientzien arloan: 17 tesi.

Gizarte eta Lege Zientzien arloan: 16 tesi.

Artea eta Giza Zientzien arloan: 16 tesi.

## OTSAILA

**Kalitatezko euskara sustatu eta zabaltzeko lau urterako hitzarmena izenpetu dute EITBk eta Euskaltzaindiak**

Hitzarmenaren helburu nagusiak dira euskararen eredu estandarra zabaldu eta gizarteratzea, euskararen lantze funtzionala indartzea eta euskalkien eta hizkeren aberastasuna zaintzen laguntzea.

Andoni Aldekoa Euskal Irrati Telebistako (EITB) zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak 2024ko abenduaren 31 arte indarrean egongo den bi erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. EITBren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren 2003tik dator, eta ordutik kalitatezko euskara sustatu eta zabaltzearen alde egin dute bi erakundeek.

EITBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenean jasotzen denez, EITBko he-  
dabideek kalitatezko euskara estandar eredugarria zabaltzen eta finkatzen lagun-  
duko dute ondoko lau urteetan, Akademiaren arau eta irizpenak betetzeko engai-  
mendua hartzen dutela. Aldi berean, euskalkien aberastasuna aintzat hartzen eta  
bistaratzen ahaleginduko dira, hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari  
eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran.

Hori guztia aurrera eramateko, EITBk Euskaltzaindiaren laguntza eta kolaborazioa izango du. Gainera, EITBren testu-masa erabiltzen jarraitzeko aukera emango zaio Euskaltzaindiari, UZEIrekin, Elhuyarrekin eta IXA taldearekin batera garatzen diharduen *Lexikoaren Behatokia* osatu ahal izateko.

## MARTXOA

### **Euskaltzaindiak 2021-2024 aldiko lurralde-ordezkarriak izendatu ditu**

Honela, Miriam Urkiak jarraituko du Gipuzkoako ordezkarri izaten, Sagrario Aleman izango da Nafarroako ordezkarri berria (Andres Iñigoren lekua hartuz), Roberto González de Viñasprek jarraituko du Arabako ordezkarri bezala eta Ipar Euskal Herriko ordezkarri berria Jean-Baptiste Coyos izanen da (Xarles Videgainen lekua hartu du).

### **Euskaltzaindiak *Lurraren Zientzien Oinarrizko Lexikoa* argitaratu du**

*Lurraren Zientzien Oinarrizko Lexikoaren* dokumentuak bi atal ditu:

- Euskara-atala, 1.609 sarrera dituena. Sarrera guztiek arlo-informazioa dute, marken bidez adierazia: *Geogr.*, *Geol.*, *Meteorol.*, *Miner.*, *Ozean.* eta *Paleont.* Lantaldeak beharrezko iritzi izan dionean, informazio osagarriak gehitu dira, hala nola kategoria gramatikala, erabilera-oharrak, ohar semantikoak eta adibideak. Sarrera guztietan, ingelesezko (en), gaztelaniazko (es) eta frantsesezko (fr) ordainak argitaratu dira.

- Erdarak-euskara atala, hiru azpiatalez osatua (en-eu, es-eu, fr-eu).

## APIRILA

### **Euskaltzaindiak *Lexikoaren Behatokia* eguneratu du**

Euskaltzaindiak *Lexikoaren Behatokia* eguneratu du: guztira 98.060.414 testu-hitz dauzka orain. Egitasmoaren helburua da XXI. mendeko euskararen corpus zabala eta eguneratua osatzea. Horretarako, material ugari biltzen da: egunkarietako albisteak, aldizkari orokorretako testuak, herri-aldizkari batzuenak, literaturan eta saiakeran ondutako testuak, hezkuntzako materiala, eta administrazioko materiala.

Corpus etiketatua eta automatikoki lematizatua da, eta horrek modua ematen du hizkuntzaren erabilera hurbiletik jarraitzeko.

Gainera, testu-hitzak bilatzeko hainbat aukera eskaintzen du *Lexikoaren Behatokiak*. Hiru dira nagusiak: bilaketa arrunta, bilaketa aurreratua eta konparazio-bilaketa (formen artekoa, urtez urtekoa). Horiez gain, bilaketa gidatuak egiteko laguntzailea dago.

## MAIATZA

**Euskaltzaindiak Europa mendebaldeko hizkuntza gutxituen egoera aztertzen duen liburua plazaratu du Jagon sailean**

*Jagon 21: Hizkuntza gutxiagotuak zaindu, euskara jagon liburua aurkeztu du Euskaltzaindiak Iruñean. Nafarroako Gobernuaren laguntzaz editatu du lan hau Euskararen Akademiak, eta mendeurrenaren kariaz antolatutako XXIII. Jagon Jardunaldiko hitzaldiak biltzen ditu.*

2019ko urtarrilean, Jagon Jardunaldi berezia antolatu zuen Euskaltzaindiak Iruñean. Jardunaldiaren helburuak garbiak ziren: hizkuntza gutxituei buruzko ikuspegia landu eta aurreratzea, beste lurralde batzuetan egiten den lana Euskal Herrikoarekin batera uztartzeko betiere, aukera zientifiko egokia bilatuz. Bide batez, azken ehun urteetan Euskaltzaindiak euskararen jagote lanean zer egin duen erakutsi nahi zen, eta, horrekin batera, etorkizunean egin dezakeenaren inguruan hausnartu.

Mintegian parte hartu zuten hizkuntzalarien hitzaldiak jasotzen ditu liburuak, gehien-gehienak Europako mendebaldeko hizkuntza gutxituen egoerari buruzkoak. Besteak beste, Mikel Zalbide euskaltzain osoaren hitzaldia («*Euskaltzaindiaren ehun urteko jagon-lana: zenbait mugari*»), Joan A. Argenterrena («*Diversidad lingüística, diversidad lingüística en España y academias: ecologías, regímenes, instituciones*»), Elena Chiocchettirena («*Language rights and minority language development in Italy: examples from the central Alpine arc*»), Jeroen Darquennesena («*Reversing Language Shift in European language minority settings: a tentative general outline of contemporary challenges and strategies*»), Jean-Guy Talamonirena («*De la création d'un champ littéraire à une*

*politique de normalisation linguistique*) edo Juan Carlos Moreno Cabrerarena («*Análisis ideológico del concepto de 'lengua regional europea' y sus consecuencias glotopolíticas*»).

### **Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egin du maiatzeko Osoko bilkura**

Bilkuraren aurretik, Unai Hualde Parlamentuko lehendakariak bere bulegoan hartu ditu Andres Urrutia euskaltzainburua, Sagrario Aleman Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria, Adolfo Arejita idazkaria, Miriam Urkia Gipuzkoako ordezkaria eta Jean-Baptiste Coyos Iparraldeko ordezkaria.

Euskaltzaindikok kideei egindako harreran Unai Hualdek adierazi du euskara hizkuntza propio gisa tratatzeko desio hori Parlamentuaren domina 2019ko abenduan Euskaltzaindiari eman zitzaionean agertu zuela, baina zoritxarrez ez dela hala gertatu: “oraindik ere badago etxe honetan gure hizkuntza, euskara, errezeloz hartzen duenik”.

Euskarari buruzko Foru Legearen inguruan dagoen eztabaidari dagokionez, Parlamentuko lehendakariak adierazi du batzuen iritziz “legea gaindituta” dagoela eta beste askorentzat, berriz, “gainditu ezinezko muga bat” dela gaur egun indarrean dagoen lege hori. Hala, Nafarroan euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko deia egin du, esaterako, “funtzio publikoan sartzeko merezimendu gisa baloratu”. “Zeharo naturala izan beharko litzateke, sen oneko kontu hutsa da”, gehitu du Uhaldek.

Amaitzeko, Euskaltzaindiak “euskararen defentsan eta sustapenean” duen pape-ra azpimarratu du, eta Euskaltzaindiarekin eta arlo honetan diharduten gainerako eragileekin batera norabide horretan lanean jarraitzearen aldeko apustua egin du.

## **EKAINA**

### **Euskaltzaindiak euskara hirian sustatzen lagunduko dio Gasteizko Udalari**

Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak berriki berretsi duten lankidetzaz hitzarmena aurkeztu dute, bai eta Gasteizko udalerriko toponimia historikoaren saileko beste liburuki bat ere, *Gasteizko toponimia. Arratzua III* izenekoa, hain zuzen. Prentsaurrekoan, Iñaki Gurtubai Gasteizko alkateorde eta Euskarako zinegotziak, Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso eta Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak eta Elena Martínez de Madina ikertzaile eta euskaltzain urgazleak parte hartu dute.

Hitzarmen berriaren bidez, Udalak 63.000 euro emango dizkio Euskararen Akademiari, urte osoan kultur zabalkunderako jarduerak, ikastaroak eta hitzaldiak antola ditzan. Horrez gain, Euskaltzaindiak euskararekin lotutako gaietan aholku emango die Gasteizko Udalari eta udal-zerbitzuei. Gainera, hirian hizkuntza babes-ten, zaintzen eta sustatzen jarraituko du Akademiak.

### **Gazteek bizitzari eta itxaropenari idatzi diote 2020ko Azkue Literatura sarietan**

Resurrección María Azkue Literatura sariak banatu dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Sari-emate ekitaldian, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Koldo Bilbao BBKren Kultura arloko arduradunak parte hartu dute.

Akademiak berak eta BBK-k 1991. urtetik antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusi. Jakina denez, bi genero saritzen dira Azkue sarietan: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila (10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat) eta B maila (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatu dituenak. Hauexek izan dira aurtengo epaimahaikoak:

- A mailan: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.

- B mailan: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

#### **A mailako sariak**

Narrazioaren alorra:

Lehen saria: *Argi izpiak*. Egilea: Maria Illarramendi (Urola Ikastola, Azpeitia - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Abandonatutako estazioaren kondaira*. Egilea: Elene Aizpurua (Iraurgi Ikastetxea, Azpeitia - Gipuzkoa).

Hirugarren saria: *Kolore dantza*. Egilea: Maren Herrera (Haurtzaro Ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).

Aipamen berezia: *Ez naiz hiltzearen beldur*. Egilea: Irati Zuntzunegi (Seber Altube Ikastola, Gernika - Bizkaia).

Olerkiaren alorra:

Lehen saria: *Insomnio gauak*. Egilea: Irati Hierro (Urola Ikastola, Azpeitia - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Bidaian*. Egilea: Amaia Zabala (Seber Altube, Gernika - Bizkaia).

Hirugarren saria: *Bakardadea*. Egilea: Ane Mugica (Haurtzaro Ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).

### **B mailako sariak**

Narrazioaren alorra:

Lehen saria: *Talde-lanak ekarritako galdera*. Egilea: Iker Niño (Udarregi Ikastola, Usurbil - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Elena Barrutia*. Egilea: Lutxi Iribarren (Bernat Etxepare Lizeoa, Baiona - Lapurdi).

Hirugarren saria: *Zapatatxo zuriak*. Egilea: Irene Garcia (Lauro Ikastola, Loiu - Bizkaia).

Olerkiaren alorra:

Lehen saria: *Munduari azaleratu*. Egilea: Uxue Armental (Pasaia-Lezo Lizeoa, Pasaia Donibane - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Izanak*. Egilea: Uxue Perez (Beasain BHI, Beasain - Gipuzkoa).

Hirugarren saria: *Gefangen*. Egilea: Ander Segarra (Lauro Ikastola, Loiu - Bizkaia).

## **UZTAILA**

### ***Euskara Batuaren Eskuliburuaren laugarren edizioa kalean***

Harrera ezin hobea izan duen *Euskara Batuaren Eskuliburuak* laugarren argitaldia ikusi du paperezko bertsioan. 2018ko urrian izan zuen lehena, eta orain, aurreko argitaraldiarekin konparatuta, ukitu txiki batzuk izan ditu. EBE digitalak ere jaso ditu, noski, aldaketa xume horiek. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* izan diren eguneratze eta aldaketek eragin dituzte, alde batetik, ukitu txiki horiek (esaterako,

husna hitza onartu izanak), eta bestetik, formari dagozkion bestelako doitze-egokitze-hobetze puntual batzuk.

### **Ahokotasunaren ikerkuntzan eta hedatzean Mintzolaaren lekukoa har dezan proposatu diote Euskaltzaindiari**

Bertsogintzaz harago, ahozko gainerako diziplinetan gehiago sakondu eta eragiteko beharrak bultzatuta, azken urtebete honetan bere helburuen eta egitekoaren inguruko gogoeta egin du Mintzola Fundazioak. Prozesu horren ondorioz, patronatuko kideek aho batez erabaki dute fundazioaren ibilbidea amaitutzat ematea eta ahokotasunari buruzko ikerkuntza eta hedatze lanaren lekukoa Euskaltzaindiak har dezala proposatzea. Villabonako Subijana Etxeak, berriz, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitza izaten jarraituko du aurrerantzean ere.

Hartutako erabakiak Ahozko Lantegiaren eta Bertsozale Elkartearen proiektuak fisikoki banatzea dakar, eta, Mintzolako kide diren erakunde eta eragileek hala adostuta, ahokotasunaren lanketa beste modu batera bideratzea ekarriko du. Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Villabonako Udala, UPV/EHU eta Kutxa Fundazioa bat etorri dira Mintzola Fundazioak euskarari eta euskal kulturgintzari egindako ekarpena azpimarratzeko garaian, urte hauetan guztietan hamaika ikerlan eta proiektu sustatu baititu. Aldi berean, eragile guztiek bere esker ona adierazi nahi izan diete urte hauetan guztietan Ahozko Lantegian lanean jardun diren pertsona eta eragile guztiei, izan teknikari, aditu, ikertzaile, herritar nahiz erakunde.

Berriki egindako batzarrean patronatuko kideek, beraz, fundazioa desegin eta Ahozko Lantegiaren jarraipena Euskaltzaindiaren esku uzteko proposamena hobetsi dute. Azken honek baiezkota eman ostean, inplikaturako eragileek, euskarazko ahokotasunaren ikerketari eta dibulgazioari jarraipena eman asmoz, prozesu bat abiaraziko dute irailetik aurrera, errelebo horren inguruko baldintzak modu egokian eta adostuan gauzatu ahal izateko.

Mintzola Ahozko Lantegia 2008an sortu zen. Bertsolaritzatik abiatuta, ahozko tradizioaren gaineko hausnarketari eta ahokotasunari loturiko diziplinen arteko elkarreragina bultzatzea izan du helburu azken urte hauetan guztietan, gizartearen premia berriekin uztartuz eta, era berean, diziplina hauek indartuz. Horretarako,



bertsolaritzaren ikerketan sakontzen eta, horietan landutako hausnarketak go-  
goan, euskaraz diharduten beste ahozko kultur sorkuntzetara eta nazioarteko beste  
kantu inprobisatuetara zubiak eraikitzen saiatu da azken hamarkada honetan.

## IRAILA

Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eus-  
kaltzaindiak 2021-2024 epealdirako esparru-hitzarmena berritu dute

Erakunde hauek bosgarrenez sinatu dute hitzarmena, lehenengoa 2000-2004  
epealdikoa izan zen. Helburua erakunde sinatzaileen lankidetzarako oinarri oroko-  
rrak ezartzea da. Euskara ikertzeko eta zabaltzeko jardueren ikuspuntu integratu  
baten barruan, epe ertain eta luzera erronka berriak planteatzea ahalbidetuko du  
hitzarmenak.

Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin den ekitaldian Kultura eta Hizkuntza  
Politikako sailburu Bingen Zupiriak, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gober-  
nu Irekiaren zuzendari Lexuri Ugartek, Xabier Arauzo Bizkaiko Foru Aldundiko  
Euskara zuzendariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasune-  
rako zuzendari nagusi Garbiñe Mendizabalek parte hartu dute, Andres Urrutia  
euskaltzainburuarekin batera.

Euskaltzaindiak epe ertaineko finantzaketa egonkortzeko eta behar diren eba-  
luazio eta segimendu mekanismoak ezarri ahal izateko lankidetzan jarraitzeko  
beharra azpimarratu dute hitzarmenaren sinatzaileek. Horrela “Euskaltzaindiari  
finantzaketa bermatuko zaio, euskararen gainean dituen arau, kontsulta, ikerke-  
ta eta zabalkunde eginkizunak bete ditzan”. Eusko Jaurlaritzak 5.040.000 euroko  
urte anitzeko dirulaguntza emango dio Euskaltzaindiari, Arabako Foru Aldundiak  
400.000 eurokoa, Bizkaikoak 1.420.000 eurokoa eta Gipuzkoakoak 900.800 eu-  
rokoa.

Honakoak dira hitzarmenaren helburu nagusiak:

Herri-erakunde sinatzaileen eta Euskaltzaindiaren arteko koordinazio-harrema-  
nak eta mekanismoak antolatzea, konpromisoak hartzean eta aldizka kontuak  
ematean oinarrituta.

Helburu horiek bermatzeko behar diren lerro estrategikoak, helburu orokorrak  
eta ebaluatzeko mekanismoak ezartzea, alderdi guztiak ados jarrita.

Bere helburuak betetzen jarrai dezan, baliabideak ematea Euskaltzaindiari, hitzarmen honetan hartutako konpromisoen arabera.

Ikerketa-programen finantzaketa egonkortzea, epe ertainean.

Euskaltzaindiaren proiektuen eta batzordeen ikerketa-jarduerak bultzatzea eta areagotzea.

Euskaltzaindiak euskara zabaltze eta sozializatzeko aldera egiten dituen jarduerak sustatzea.

Euskaltzaindian, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa eraginkorra antolatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera bultzatzea, eta komunikazioa bermatzea eta hobetzea erabiltzaileei eskaintzen zaizkien arretari eta zerbitzuei dagokienez.

Hitzarmena sinatzen duten bost erakundeetako ordezkariak Jarraipen Batzorde bat eta Batzorde Tekniko bat osatuko dute, eta hauen ardura izango da hitzarmenaren betetze mailaren jarraipena egitea.

## URRIA

### **Ander Gil García Espainiako Senatuko presidentek Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu du**

Espainiako Senatuko presidente batek Euskaltzaindia bisitatzen duen lehen aldian izan da gaurkoa. Txema Oleaga senatariarekin batera izan da Euskaltzaindiaren egoitzan.

Plaza Barriko eraikinean, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin eta Adolfo Arejita idazkariarekin batzartu dira. Etorkezinean, bi erakundeen arteko elkarlana sustatzeko goa erakutsi dute batzuek eta besteek.

Bilkuraren aurretik, egoitzako liburutegia eta batzar-aretoa ezagutzeko aukera izan dute Gil García eta Oleagak. Horrez gain, Euskaltzaindiaren Ohorezko Liburuan sinatu du Senatuko presidentek eta, ondoren, euskaltzainburuak hainbat liburu oparitu dizkie bisitariari, besteak beste, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio bat hainbat hizkuntzatan, Axularren *Guero* lanaren faksimilea eta *Oinarizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren* bi ale.

## **Euskaltzaindiak Davant eta Casenaveren lanak aurkeztu ditu Sarako Idazleen Biltzarrean**

Prentsaurrekoan, Jon Casenavek esan du bere liburuak bi helburu nagusi dituela: “Alde batetik dago helburu historikoa; eta bestetik historiografikoa, lan honetan gogoeta bat egiten delako aipatzen diren liburu horietan agertzen den egin-molde historikoari buruz”.

Davantek ere gogotsu hitz egin du agerpenean, bere azken lanaren ezaugarriak azpimarratu dituela. Batetik, Jean de Jaurgain (1842-1920) Zuberoako jauntxo txikiaren profila ezagutzeko aukera ematen du liburuak; bestetik, Jaurgainek idatzitako lan bitxi baten itzulpena dakar. 1899an, Jaurgainek zuberotar ahozko literaturaren sei kondaira poetiko idatzi zituen *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* liburuan, eta hain zuzen horiek dira Davantek euskarara ekarri dituenak.

### **Gasteizko Udalak 25 urterako laga dio Etxezarra eraikina Euskaltzaindiari**

Gasteizko Udalak 25 urterako laga dio Etxezarra eraikina Euskaltzaindiari, eta aurrerantzean Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariaren egoitza izanen da espazio hori.

Gaur, espazioa ezagutzeko aukera izan dute Arabako hainbat erakundetako ordezkariak. Gorka Urtaran alkatearekin eta Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, bertan izan dira Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua, Pedro Eloseggi Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria, Joseba Lozano Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, eta Lexuri Ugarte Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaria.

Gorka Urtaran Gasteizko alkateak lagapenak hiriari ekarriko dizkion onurak azaldu ditu hitzaldian eta, Euskaltzaindiarentzat ere, une garrantzitsua dela azpimarratu du Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Iaz Udalak lekuaren jabari-emakida onetsi zuen, eta aurrerantzean Euskaltzaindiak bere gain hartuko ditu horniduren gastuak, altzarien zuzkidura, garbiketa, prebentzio- eta konponketa-lanak eta higiezina zamatzen duten zergak eta bestelako gastuak.

Akademiak askotariko jarduerak lantzeko baliatuko du azpiegitura berria. Alde batetik, herritarrak eta elkarte publiko zein pribatuak artatu nahi ditu Akademiak, betiere arreta jarritz euskararen ikerkuntzaren eta zabalkundearen eremuetan. Bes-

te aldetik, azpiegitura horretan egun Akademiak Gasteizen barreatuta dauzkan eta etorkizunean abian jarri nahi dituen ikerketa-egitasmoak kokatuko ditu.

Euskaltzaindiak eskuratu duen espazioak 340 metro karratu erabilgarri ditu goiko solairuan (behealdean jatetxea dago), baina jada egokituta dago. Honela, espazioak gunee bat izango du ikastaro, hitzaldi edo liburu-aurkezpenak egiteko; beste bat Osoko bilkurak edo bestelako batzarrak egiteko; Akademiaren proiektuak bideratzeko leku bat ere izango da; kontsultak egiteko mediateka txiki bat eta, azkenik, Arabako ordezkariaren bulegoa.

## AZAROA

Euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoera aztertu du XXVI. Jagon Jardunaldian

Euskaltzaindiak Iruñean, Kondestablearen jauregiko hitzaldi aretoan, egin du XXVI. Jagon Jardunaldia. Honela, bertan izan dira Eduardo Aldasoro (pedagogoa); Marisa Zubiri, Maite Gorospe eta Alberto Barandiaran (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua); Imanol Janices (Jaso ikastola); Alfredo Dufur (Nafarroako Toki-entitateetako Euskara Teknikarien Sarea); Mainer Etxaniz (Lizarra Ikastola); Mirentxu Oteiza eta Nora Iriarte (EIBZ); Esther Lakasta (Dindaia Fundazioa); eta Marta Diez (Sortzen).

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du euskararen biziberritze prozesuan. Ildo horri eutsiz, estrategikoa da hezkuntzan egitasmo eraginkorrak bideratzea gero eta eleaniztunagoak diren ikasleen artean. Baina, zein da euskarak Nafarroako hezkuntzan duen egoera? Nola kudeatu eleaniztasuna ikastetxeetan orain eta etorkizunean? Zein erronka eta aukera berri ditu euskarak gela barnean eta gelatik kanpo? Zein egitasmo ari dira garatzen gela barnean eta gelatik kanpo?

**Alfontso Mujika ingeniari eta hizkuntzalari gipuzkoarra euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak**

Euskararen Akademiak euskaltzain berria izendatu du, Iruñeko udaletxean egin den Osoko bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin dute Ibon Sarasola emeritu

izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta Alfontso Mujikak erdietsi du Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengoa.

Gogoratu behar da uztailaren 23an, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean egindako Osoko bilkuran, Akademiak euskaltzain emeritu izendatu zuela Ibon Sarasola euskaltzain osoa; jakina da emeritu izateko 75 urte beteak izan behar dituztela euskaltzain osoek. Ondoren, urriaren 29an amaitu zen hutsune hori betetzeko hautagaiak aurkezteko epea. Hautagai bakarra aurkeztu zuten euskaltzainek Gasteizko Osoko bilkuran (Alfontso Mujika Etxeberria) eta gaurko bilkuran hizkuntzalari gipuzkoarraren aldeko hautua egin dute euskaltzainek.

Orain, zortzi hilabeteko tartea izango du Mujikak sarrera-hitzaldia paratzeko, eta epe bera izanen du erantzunezko idazkia egin behar duen euskaltzainak berea prestatzeko. Horren buruan, harrera ekitaldia egingo da.

Ibon Sarasola euskaltzain emerituaren lekua beteko duen euskaltzain osoaren profil laburra:

**Alfontso Mujika Etxeberriak** (Donostia, 1959) Ingeniaritza Tekniko Industrialak ikasi zuen EHU-n. 1982-1987 bitartean, Donostiako AEKn lan egin zuen, irakasle hasieran, eta AEK-ko Donostialdeko eraketa-arduradun gisa azken hiru urteetan. 1987-1990 bitartean, Udako Euskal Unibertsitateko kudeatzailea izan zen.

### **Euskaltzaindiak 19 urgazle eta 26 ohorezko berri izendatu ditu**

Euskaltzaindiak urgazle eta ohorezko berriak izendatu ditu. Batzuen eta besteen zerrendak joan den ostiralean onetsi ziren aho batez, Iruñean eginiko azaroko Osoko bilkuran. Urgazleei dagokienez, oraingo honetan, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak baino ez dira izendatu, Arabakoak 2015eko uztailaren 17an izendatu baitziren, eta Nafarroako azken urgazleak 2016ko apirilaren 29an. Azken ohorezkoak, berriz, 2018ko apirilaren 27an izendatu ziren.

Hona hemen ohorezko (26) eta urgazle (19) berrien izenak:

## OHOREZKOAK

**Araba/Bizkaia:** Antton Aldekoa-Otalora (Iurreta, 1951); Pilare Baraiazarra (Meñaka, 1938); Jesus Eguzkitza (Atxondo, 1946); Juan Luis Goikoetxea (Mungia, 1947); Lontzo Zugazaga (Gamiz, 1943).

**Gipuzkoa:** Luis Alberto Aranberri *Amatiño* (Eibar, 1945); Itziar Idiazabal (Gaintza, 1949); Anjel Lertxundi (Orio, 1948); Xabier Mendiguren Bereziartu (Ezkio-Itsaso, 1945); Jose Antonio Mujika (Donostia, 1943); Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944); Josu Zabaleta (Legazpi, 1948).

**Nafarroa:** Manolo Arozena (Goizueta, 1949); Carlos Garaikoetxea (Iruñea, 1938); Maria Pilar Lasarte (Leitza, 1937); Daniel Lopez (Ablitas, 1948); Rosa Miren Pagola (Iruñea, 1949); Pakita Zabaleta (Leitza, 1948).

**Ipar Euskal Herria:** Piarres Aintziart (Heleta, 1937); Luzien Etxezaharreta (Hazparne, 1946); Daniel Landart (Donostiri, 1946); Mixel Oronoz (Baigorri, 1935); Marikita Tambourin (Baigorri, 1946).

**Euskal Herritik kanpokoak:** Bernhard Hurch (Schärding/Inn, Austria, 1955); José Antonio Pascual (Salamanca, 1942); José María Sánchez *Txepetx* (Cartagena, 1952).

## URGAZLEAK

**Bizkaia:** Libe Agirre (Meñaka, 1961); Eneko Barrutia (Bilbo, 1966); Eba Gaminde (Mungia, 1968); Pedro Maria Goikoetxea (Lezama, 1959); Nerea Mujika (Durango, 1960); Elixabete Piñol (Bilbo, 1965).

**Gipuzkoa:** Kike Amonarriz (Tolosa, 1961); Nerea Azurmendi (Legazpi, 1961); Asun Garikano (Tolosa, 1962); Aizpea Goenaga (Donostia, 1959); Oroitz Jauregi (Legorreta, 1974); Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966).

**Ipar Euskal Herria:** Mixel Aurnague (Baigorri, 1963); Eneko Bidegain (Baiona, 1975); Itxaro Borda (Oragarre, 1959); Pantxoa Etxegoin (Jatsu, 1960); Marie-Andrée Ouret (Suhuskune, 1970)

**Euskal Herritik kanpokoak:** Manuel González (Beba -Mazaricos-, A Coruña, 1951); Mikel Morris (Denver, Colorado, AEB, 1957).

## ABENDUA

### XXI. mendeko *Euskararen Gramatika* argitaratu du Euskaltzaindiak

Azken hogeita bost urte hauetan argitaratu diren gramatikek baliatzen dituzten kontzeptuak aintzat hartu dira Gramatika berria egiterakoan. Honela, kontuan hartu dira azken urteetan egindako ikerketa teorikoak, baina deskribatzailea da gramatika hau, ez teorikoa.

#### **Berritasunak:**

‘deklinabide’ eta ‘kasu-sistema’ kontzeptuak bereizi dira, eta, Van Eysek XIX. mendearen amaieran egin bezala, euskaraz ‘kasu atzizkiak’ eta ‘postposizio atzizkiak’ ere bai.

‘argumentu egiturak’ eta ‘paper tematikoak’ kontuan hartu dira aditzen sailkapena egitean, baita hitz elkarketa eta eratorpena aztertzean ere.

‘hitz ordena’ kontzeptua ikuspegi zabalago batetik aztertu da, eta ‘sintaxi egitura’ eta ‘informazio egitura’ bereizi dira. Eta informazio egitura aztertzean EGLU-I Eranskineko kapitulua osatu da.

Morfologia lexikoari zazpi kapitulu eskaini zaizkio: Euskaltzaindiak hitz elkarretaz argitaraturiko lau liburukiak laburtu eta eratorpen atzizkiak banan-banan aztertu dira.

Izenari, adjektiboari, izenordainei, adberbioari, determinatzaileei eta aditzei eskainitako kapituluak sakonki berritu dira. Hau da, EGLU-I eta EGLU-II goitik behera berrikusi, aldatu, eta osatu dira.

Perpausetik goragoko ikuspegian sakondu eta diskurtso markatzaileei bi kapitulu mardul eskaintzea erabaki da, argitaratu zenean guztiz berria zen ‘lokailu’ en gaia (EGLU-III) osatu, ‘diskurtso-markatzaile’ en barruan kokatuz.

### **Urtero lez, Euskaltzaindia Durangoko Azokan izan da, eta 2021eko argitalpenak eraman ditu bertara**

Aurten Azoka presentziala izan da (aurretik erreserba eginez), baina iazko ildoari jarraituz, denda digitala ere prestatu dute antolatzaileek.

Beraz, Euskaltzaindiak 2021ean argitaratu dituen liburuak eskuratzeko aukera

anitz izan dute irakurleek. Tartean, Gerediagak sortu duen salmenta gune digita-lean eta, nola ez, Euskaltzaindiaren webgunean.

Euskaltzaindiak bi lan aurkeztu ditu Azokan: abenduaren 6an Antxoka Agirre-  
ren *Bertsolaritzaren historia soziala: oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)*, eta 8an *Eus-  
kararen Gramatika*.

Bestalde, Akademiak nobedade hauek aurkeztu ditu aurten:

- *Gipuzkoa Antzinaroan: Hizkuntzak eta eremu linguistikoak Onomastikaren argitan*
- *Euskal literatura itzuliaren egitura eta islak*
- *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak (1790-1807)*
- *Euskararen Literaturaren Historia*
- *Hizkuntza gutxiagotak zaindu, euskara jagon*

**Laurogei sarrera eta 103 azpisarrera berri gehitu dira *Orotariko Euskal Hiztegi*an**

OEH eguneratu du Euskaltzaindiak: 14.600 adibide egituratu dira TEI delako testu-kodeketaren arabera, adibidetegian kontsultak egiteko aukera zabalduz, eta 80 sarrera eta 103 azpisarrera berri gehitu dira.

Horrez gain, Santiago Onaindiaren *Santa Teresa Eliz-Itakasle* liburua osorik hustu da, bertako adibideak aukeratu eta OEHn txeratu direla. *Lizarraga Elkanokoaren Je-  
sukristo, Maria eta Santuen Bizitzak* liburuko adibideak ere sartu dira.

*Orotariko Euskal Hiztegi*ak euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena.

Euskaltzaindiak orain eskaintzen duena hiztegiaren oinarritzko bertsio elektroni-koaren 9. argitaraldia da eta Creative Commons lizentziapean banatzen da.

Egituretze-lanetan jarraitzen du Euskaltzaindiak, hiztegiaren barne-egitura eten-gabe zuzenduz eta hobetuz. Lan horiei esker, hiztegiko azpisarrerak eta hainbat aldaera ere topatzeko gai da orain bilatzailea.



2021ean **Euskaltzaindiaren Hiztegia** eguneratu da eta 921 forma berri jaso dira

2021ean, guztira 2.202 forma landu dira: 1.281 moldatu eta 921 forma berri jaso (638 sarrera eta 283 azpisarrera).

Hitz ugari gehitu zaizkio hiztegiari. Gutxi batzuk aipatzearen: *apuratu, narko, hormatzar, efektibo, dietista, kafetxo, ponentzia, artefaktu, arpilatze, faktoria, light, literal, lurrarzi, joskintza, partzela, tik-tak, txikitero, pisukide, ibuprofeno, doktrinamendu, podcast, queer, nezeser, koronabirus, zaugarritasun, nahasmendu bipolar, asanblada, trajeria, euste, birziklapen, dedio, aurri, txantxiku, ustiaketa, zupatu, telelaguntza, hitzmate, pirateatu, esanbidezko, gobernantza, telelaguntza edo heteropatriarkal.*

Azpisarrera berrien artean ere badira berrikuntzak. Esaterako, *arrisku(-)egoera, haur(-)eskola, orri(-)baxter, setio(-)egoera, sexu(-)abusu; sexu(-)jeraso, hil ala biziko, lan(-)stripu, larrialdi(-)zerbitzu, off-eko ahots, berri(-)agentzia, klima(-)aldaketa, klima(-)larrialdi, eskusiban, foru(-)zuzenbide, arreta(-)zerbitzu, gibel gizen, malo-malo, nahasmendu bipolar, kirol(-)lege, ziztuan edo pubis(-)zorri* gehitu zaizkio hiztegiari.

Gaur egun, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* 49.596 forma ditu guztira (40.002 sarrera eta 9.594 azpisarrera) eta 68.695 adiera (horietatik 2.420 azpiadierak dira).

Miriam Urkia euskaltzain osoak adierazi duen bezala, hitz berrien artean badira lehendik baztertuak zeudenak eta orain onartuak izan direnak. Hona hemen hiru adibide:

**binario:** lehen *bitar* eta *biko* erabiltzeko esaten zen, baina orain adiera berria onartu da: "Sexu edo genero sistemez mintzatuz, bi kategoria —emakumea eta gizona— dituen".

**biluztu:** batez ere bizkaieraz eta gipuzkeraz erabilia. Hasiera batean, garbizaleago jokatu zen (*biluzi* jaso zen bakarrik) eta euskalkietako aldaera batzuk isildu edo baztertu egin ziren, baina orain, batzuk berreskuratu egin dira.

**eskumalde:** bizkaieraz erabiltzen da, batez ere (*eskuinalde* bakarrik zegoen lehen, baina bizkaieraz *eskuma* da, eta berreskuratu egin da Bizk. markarekin).

2021ean 674.260 erabiltzaile izan ditu **Euskaltzaindiaren webguneak**

674.260 erabiltzaile izan ditu Euskaltzaindiaren webguneak, saioak 1.447.235

izan dira, 5.928.613 orrialde bisitatu dituzte erabiltzaileek, eta saio bakoitzaren iraupena ia bost minutukoa izan da.

Hona hemen Euskaltzaindiaren webguneko tresna eta zerbitzu nagusien erabileratuak:

**Euskal Onomastikaren Datutegia:** 136.454 erabiltzaile

**Orotariko Euskal Hiztegia:** 93.298

**Euskaltzaindiaren Hiztegia** 108.886

**Bilatzailea:** 65.865

**Euskara Batuaren Eskuliburua** 12.156

**Jagonet:** 3.245

**Euskara Eskuz Esku** 1.372

**Euskararen Herri Hizkeren Atlas:** 3.179

**Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa:** 1.220

**Argitalpenak:** 1.110

### **Euskaltzaindiak eta UZEIk 2021eko hitza aukeratu dute: «aldaera»**

Euskaltzaindiak eta UZEIk 2021eko hitza aukeratu dute, «aldaera» hain zuzen. Lehen aldia da Euskaltzaindiak eta UZEIk urteko hitza elkarrekin hautatzen dutela. Euskarazko lexikoaren jarraipena egiten du, egunez egun, Akademiaren erakunde atxikia den UZEIk. Horretarako, nagusiki, komunikabideak arakutzen ditu, lexikoa eguneratua izatea ezinbestekoa baitaio hizkuntza naturalaren prozesamenduan oinarritutako tresnetarako. Eguneroko jarraipen horretan oinarrituta hautatu da 2021eko hitza.

Euskararentzat, «aldaera» ez da hitz berria. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* jasota dago lehendik ere, baina azken hilabete hauetan ohiz kanpoko erabilera izan du pandemiaren harira. Izan ere, aurtien ere COVID-19a izan da albiste nagusienetakoa, besteak beste, birusaren aldaera berriek pandemiaren beraren bilakaeran duten garrantzia dela eta.